



Tasio Erkiziari igeltsua jarri behar izan diote eskuineko eskuan. EFE

Erkiziak ertzain bat salatu du behatz bat hautsi ziolako

BILBO

Tasio Erkizia Herri Batasunako parlamentariak ertzain baten eta Joseba Leizaola Gasteizko Legebiltzarreko lehendakariaren kontrako salaketa aurkeztu zuen atzo Bilboko goardiako epaitegian. Ertzain horrek eskuin eskuko hatz bat hautsi ziola herenegun Legebiltzarrean salatu du Erkiziak.

HBko zazpi parlamentarik pankarta bat zabaldu zuten asteartean Legebiltzarrean, erakunde honek HBko hamahiru legebiltzarkideei soldadak eta bestelako dirulaguntzak kentzeko hartu duen erabakiagatik protestatzeko. Hiru ertzainek indarrez kendu zieten pankarta, eta Erkiziari behatz bat hautsi.

«Gertaera larria izan zen, eta aurretikorik ez duena» uste du

Erkiziak, «Ertzaintzak Legebiltzarrean barruan adierazpen askatasuna duten parlamentariak indarrez eraso zituelako».

Salaketa behatza «apropos» hautsi zion ertzainaren kontra jarri du Tasio Erkiziak, bai eta Leizaola Legebiltzarreko lehendakariaren kontra ere, «egoitzako buru nagusi den eran». Lehendakariak eta segurtasun buruak «gehiegikeriaz» erabili zutela beren agintea esan zuen HBko kideak. Erkiziak hiru aste egin beharko ditu eskuineko eskua igeltsatuta.

Legebiltzarrak ez duela «oposiziorik onartzen» adierazten dute, bere ustez, herenegungo gertaerek. «Bere politikarekiko menpekotasuna eta konplizitatea egotea nahi du, ustelkeria eta eraginkortasunik eza» adierazi zuen Erkiziak.

Bergizarteratzeak «ETAn eta HBn» sortu behar duela tentsioa dio PPK

PPren hautesleen artean eraginik ez duela izango dio Mayor Orejak

ETako presoentzat bergizarteratze neurriak onartzeak ez dio PPr botorik kenduko, Javier Arenas eta Jaime Mayor Oreja PPKo buruzagien esanetan. Mayorrek, gainera, uste du bergizarteratze proposamenak tentsioa HBn eta ETAn eragin behar duela, eta ez alderdi demokratikoetan.

F.I. / GASTEIZ

Javier Arenas PPKo hauteskunde batzordeko lehendakariak gezurtatu egin zuen atzo PPK interes elektoralistekin jokatzeko duenik bergizarteratze neurriekin. Oraindik PPK bere jarrera argi eta garbi azaldu ez duen arren, Arenasek neurrien kontra ez direla azalduko eman zuen uztzera.

Indarkeriaren inguruko jarrera zehazteko orduan botoetan izan dezakeen eragina albo batera utzi eta «sen onez» jokatu dutela «betidanik» ziurtatu zuen PPKo buruzagiak. «Ez dago ardurarik ikuspuntu elektoralistatik», esan zuen.

Esandakoa baieztatzeko PPren alde bozkatu izan duten gehienek —% 88— berriro gauza bera egingo dutela argudiatu zuen Arenasek. PSOEek, aldiz, ez omen du hainbesteko fidagarritasunik bere hautesleengan. «PSOEn alde bozkatu duten % 45ek bakarrik erabaki du dagoeneko berriro PSOeri botoa ematea», esan zuen.

Arenasek uste du «estatu arazoak» eta alderdikoak nahasten dituela PSOEek, PPK indarkeriaren inguruan gauzak garbi ez dituela salatu duenean. «Gu be-



Mayor Oreja eta Javier Arenas atzoko prentsaurrekoan. OLALDE

tidanik borroka antiterroristaren erreferentzia izan gara. PSOE izan da estatu arazoak alderdiaren arazoekin nahastu dituen», salatu zuen.

TENTSIOAK HB-N ERAGIN

Mayor Orejak, ildo beretik, bergizarteratze neurriez hitz egin den bakoitzean alderdi demokratikoetan «tentsioak» antzeman ditu. Bere ustez, ordea, tentsio horiek ez dira bloke demokratikoan gertatu behar, «HBn eta ETAn baizik».

Ituneko alderdien tinkotasun demokratikoa aldarrikatu zuen PPKo buruzagiak, eta baketze prozesuak aurrera egin dezan HB eta ETA «mugitzeko» eskatu zuen. «Mugikortasunik eza eta burugogorkeria HBn dago», esan zuen.

PP, bestalde, hauteskunde kanpaina prestatzen hasia da da-

goeneko. Arenas PPK EAEn egingo duen kanpaina aztertze hurbildu da Gasteizera. Esan zuenez, PPK inoizko emaitzarik onenak lortuko ditu datozen hauteskundeetan eta EAE ez da salbuespena izango. «Inkosten arabera PP eta PSOEn arteko alde murriztu egin da eta gauza bera gertatzen ari da hemen», adierazi zuen.

Jose Maria Aznarren alderdiak, halaber, kongresua egingo du Madrilen otsailaren lehen astean. Kongresu horretan PP gobernatzeko gauza dela erakutsiko dute Arenasen esanetan, eta Aznar Gobernua lideratzeko egokiena dela ere, Mayor Orejaren potentzia batek PPK indarkeriaren arazoan duen jarrera azalduko dute. Mayorrek potentzia aurkeztea Espainia eta EAEko PPK ildo beretik jotzen dutelako seinale da Aresanen esanetan.

Joseba Goikoetxea 'Ekintza' taldeko buruak kargua utzi du

DONOSTIA

Joseba Goikoetxea Asla 'Cabezón' Ertzaintzako Ikerketa Unitateko ('Ekintza') buruak kargua utzi behar izan du, Carlos Garaikoetxeari egindako telefono entzuketan auzian Auzitegi Gorenak bere kontrako epaia berretsi ondoren. Goikoetxearekin batera zigortu zuten Jose Maria Agirre Kerejeta Barne Saileko Transmisio arduraduna ere postutik kendu dute, 'Egin' egunkariak atzoko alean zabalduko notiziaren arabera.

Apirilaren 24ean EAeko Auzitegi Nagusiak kaleratutako sententziak hilabeteko kartzelaldia eta sei urteko inhabilitazio zigorra ezarri zien Goikoetxeari eta Agirrerri, Carlos Garaikoetxea lehendakari ohiaren Zarauzko etxean egindako telefono entzuketetan parte hartzeagatik. Telefono linearen interbentzioa Juan

Miguel Campoy eta Ramon Epalza ertzainek egin zuten Goikoetxearen aginduz eta Agirrek lotu zuten Garaikoetxearen telefonoa beste abonatu batenarekin.

Operazioaren berri berak eman arren, Goikoetxea eta Agirrerri ezarritako zigor bera agindu zuten epailek Epalzarentzat, eta Juan Miguel Campoy berriz, absolbitu egin zuten.

Agirrek eta Goikoetxeak epaia errekurritu egin zuten baina Auzitegi Gorenak abenduaren 15ean plazaratutako erabakian zigorra berretsi zuen. Ondorioz, Agirrek eta Goikoetxeak kargua utzi behar izan dute, Auzitegi Gorenaren epaiak epaiak zigorra automatikoki betetzea exigitzen baitu, nahiz eta abokatuek Auzitegi Konstituzionalean kasazio errekurtsioa jarri. Horrela ez izateko defentsak babes errekurtsioa aurkeztu beharko luke sententzia ez betetzeko eskatuz.



BERMEOKO UDALA

IRAGARKIA

Udaletxe honetako Osoko Bilkurak, 1992ko azaroaren 27an ospatutako batzarrean, beste batzuen artean, ondorengo erabakia hartu eban:

1/ Felipe Pagai Monasteriok bultzatu dauan Bermeoko Hirigintza Egitamuketaren Arau Osagarrien Aldaketa Partzialaren egitasmoa onartu hasieraz.

2/ Hile beteko epeaz informazio epe bat ireki jendea informatzeko, Edikto taulan jarri jakozan iragarkiak, Euskalherriko Aldizkari Ofizialean, Bizkaiko Boletín Ofizialean eta Bizkaiko Lurralde Historikoan eragin gehien dauan egunkarian, eraginduta sentitzen diranak egokia iruditzen jakena alegatzeko euren interesen alde, euren eskuetan jarri administrazio espedientea eta jagokan agiri teknikoak, Intxausti kalea 2 z.k.n dagozan Udaletxe honetako Hirigintza eta Ingurugiro Bulegoetan.

3/ Baimen onarpena etentzea eragindutako eremuan 1992ko ekainaren 26ko Lur Jaurbide eta Hiri antolaketa Legearen testu bateratuaren 102. artikulok agintzen dauanez.

4/ Behin behiniko eran Egitasmo hau onartuta ulertzea emandako epean alegaziorik jarriko ez balitz.

Bermeon, 1992ko abenduaren 30ean
ALKATEA



ZUMARRAGAKO UDALA

IRAGARKIA

Udal Batzarre Osoak 1992ko azaroaren 30ean egindako bilera berezian, Promotora del Gohierri, S.A.k eragin eta Iñaki Albisu arkitekto j.n.k eginko Zumarrago Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 52. Areako (Nafarroako enparantza) Xehekapen Azterketari hasierako onespina eman zionez, eta Lurzoru Legeko 106. eta 117. artikuluetan eta Planeamendu Erregelamenduko 140. artikuluan xedatutakoa betez, esandako azterlan hori ikusgai izango da Udaletxe honetako Bulego Teknikoan, Edikto hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta El Diario Vascon argitaratu eta biharamunetik, hots, bi argitalpen hauen azkenekoaren biharamunetik, aurrerako hamabost eguneko epean.

Zumarragan, 1993ko urtarrilaren 5ean
ALKATEA